

## PRENTSA OHARRA

### **Jean-Michel Basquiat-en atzera begirako bat izango da uztailean Guggenheim Bilbao Museoan**

Uztailaren 3an irekiko du Guggenheim Bilbao Museoak New Yorkeko artista Jean-Michel Basquiat-en atzera begirakoa, Espainian inoiz egindako zabalena. Kanadako erakunde entzutetsu batek, Art Gallery of Ontario-k, antolatu du, Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan, eta Iberdrolaren babesa du. Ehun bat lan izango ditu: formatu handiko pinturak, marrazkiak eta argazkiak, Europako eta Ipar Amerikako bilduma publiko zein pribatuetaoak.

Azken urteotan artista horri eskainitako proiektu handienetako bat da, eta Basquiaten lana gaika aztertzen duen lehenengoa; gaiok honakoak dira, besteak beste: historia, identitatea eta grafitiari eta hip hopari lotutako hiriko kultura. Komisarioa Dieter Buchhart austriarra izango da, artista horren aditu handienetako bat munduan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-ekarpina 2015ean kontsolidatu da eta horrek ahalbidetu du erakusketen egitaraua sendotzeko publikoarentzat erakargarriak diren proiektuetan lanean jarraitzea. Hilabete hauetan kudeaketa-lan zaila egin da, mailegu emaile diren bilduma guztien partaidetza ziurtatzeko Bilbon.

Jean-Michel Basquiat (1960–1988) 1980eko hamarkadako artista iraultzaileenetako bat izan zen; giro horretan ere murgilduta egon zen Jeff Koons, eta, izan ere, bien atzera begirakoak aldi berean izango dira Museoan. Brooklyn-en, New Yorken, jaio eta hazi zen Basquiat eta txikitatik ezagun zuen argia eta artean iaioa zela. Basquiaten izena handitzen joan zen, Ipar Amerikan eta European erakusketak egiten zituen heinean, eta, denbora gutxian, artista emankor eta kultura arloko pertsonaia ezagun bihurtu zen.

Andy Warholekin hainbat lan egin zituen lankidetzan; lagunak ziren eta Warholek begirune handia zion. Basquiateg arte garaikidean beste bide batzuk ireki zituen: haren ikuspegi berritzaileak oraindik ere kitzikatzen ditu artistak eta galdera adierazgarriak sorrarazten ditu. Pintura bakarrean, Basquiateg ideia ugari jaso zitzakeen ikurren, irudien eta testuen bidez, elkarlotuak egon ala ez gora behera. Haren inguru mihisera eramaten zuen, narrazio zehatzik gabe, eta horrela aurea hartu zion interneten garaiari eta bisitaria bultzatu zuen inguruko munduan hausnar zezan.

*Jean-Michel Basquiat: Now's the Time* Guggenheim Bilbao Museoko hirugarren solairuan izango da, uztailearen 3tik azaroaren 1era, eta komisarioak Álvaro Rodríguez Fominaya eta Dieter Buchhart izango dira.

Atzera begirako honek 2015eko Museoaren arte-programazioa osatzen du, 2014ko abenduan, Patronatuaren azken bileran, jakinarazi zen moduan. Basquiateg erakusketa itxi ondoren, azaroaren 1ean, *Guggenheim Bilbao Bildumaren maisulanak* erakusketaren muntaia hasiko da eta ikusgai izango da azaroaren 27tik aurrera.

Bilbon, 2015eko maiatzaren 4an